ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2020IPLE0002**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2020-03-10eko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2020ko martxoaren 10ean, arratsaldeko 20:00tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Unai Dorronsoro Olarra
- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. 2020/04/05EKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA
4. MIKEL GALARZA ARRUEREN ESKAERA
5. BASERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA
6. GORKA EGIAK AURKEZTUTAKO AURREKONTUA
7. ENERGIA MAHAIKO ORDEZKARIEN HAUTAKETA
8. “OSASUN PUBLIKOAREN ALDE” AGIRIARI ATXIKIMENDUA
9. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA
10. SANTA MARINAKO ESKOLAKO JABEEN ESKAERA
11. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2020-02-04ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2020ko 10 eta 22 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. 2020/04/05EKO HAUTESKUNDEETARAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA

Zozketa burutu da honako emaitzarekin:

PRESIDENTE: SALVADOR ZUBIZARRETA ARICETA.

PRESIDENTE SUPLENTE PRIMERO: IGNACIO ALBIZU ICHASO.

PRESIDENTE SUPLENTE SEGUNDO: GURUTZE UGARTEMENDIA IBARBIA.

VOCAL PRIMERO: MARIA ARANZAZU UGARTEMENDIA PELLEJERO.

VOCAL 1º SUPLENTE PRIMERO: RAMON ODRIOZOLA GARMENDIA.

VOCAL 1º SUPLENTE SEGUNDO: JOSE MARIA URQUIZU GALARRAGA.

VOCAL SEGUNDO: JOSE IGNACIO MALBADI ZURIARRAIN.

VOCAL 2º SUPLENTE PRIMERO: JOSE ANGEL AZURMENDI HUIZI.

VOCAL 2º SUPLENTE SEGUNDO: AXIER TELLERIA BERECIARTUA.

4. MIKEL GALARZA ARRUEREN ESKAERA

I: En el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Donostia se sigue el RCA Ordinario 127/2.019 contra la Resolución de la Alcaldía del Ayuntamiento de Albiztur de fecha 19 de Diciembre de 2.018 (Decreto nº 138/2.018, recaída en el expediente nº 2018POL0044, por el que se impone sanción de multa de 7.500 € y Resolución de Alcaldía de fecha 14 de Diciembre de 2.018, recaída en el expediente 2018POL0043 de disciplina urbanística, que desestima el recurso de reposición interpuesto contra la resolución de fecha 5 de Noviembre de 2.018 (Decreto nº 118/2.018) conteniendo Orden de Ejecución y restauración de la legalidad urbanística vulnerada, por construcción sin licencia de un sótano en Etarte 58, Izquierda.

II: En el transcurso del citado procedimiento judicial, en fecha 21 de Junio de 2.019 el Juzgado ha dictado Auto nº 300/2.019 (Pieza de Medidas Cautelares 11/2.019), mediante el cual se ha acordado estimar la solicitud de medida cautelar presentada por el Sr. Galarza, y en consecuencia, suspender la ejecución de las resoluciones administrativas recurridas, esto es, la imposición de la sanción pecuniaria establecida, así como la restauración de la legalidad urbanística vulnerada, procediéndose *a rellenar con grava o material similar el*

sótano construido o la demolición, a costa del interesado, con reposición a su estado original.

III: A la fecha de la redacción del presente Informe, el citado procedimiento judicial se encuentra en suspenso a solicitud del demandante, a la cual ha prestado conformidad esta defensa, a indicación y en nombre del Ayuntamiento de Albiztur.

IV: En fecha 19 de Febrero de 2.020 D. Mikel Galarza Arrue ha presentado escrito en el Registro del Ayuntamiento acompañado de diversas fotografías aéreas realizadas mediante vuelos fotogramétricos llevados a cabo por la Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo del Gobierno Vasco (D. Iñaki Garmendia Barrena, Técnico del Servicio, certifica la fecha que figura en el reverso de las mismas).

Las tres fotografías aportadas se corresponden con el año 2.013; el 16 de Julio de 2.014 y el año 2.015. D. Mikel Galarza Arrue, en su escrito, viene a señalar que la ejecución del sótano que nos ocupa, que fue objeto del expediente sancionador y de restauración de la legalidad urbanística infringida, como en el litigio que enfrenta a ambas partes en vía jurisdiccional, fue ejecutado más de cuatro años antes de haberse incoado los expedientes administrativos que se citan y por lo tanto, había ya prescrito la acción sancionadora y restauradora del Ayuntamiento, al ser calificada la infracción como grave (Art. 225, 2, en relación al art. 229, 1, b), ambos de la Ley 2/2.006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo), por lo que procedería que el Ayuntamiento de Albiztur se allanase al Recurso interpuesto por el actor en el citado RCA Ordinario 127/2.019 que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Donostia.

V: Consta en el expediente el Informe elaborado por el Arquitecto Asesor Municipal, D. Yoseba Maroto Carbajo, en relación a las fotografías aportadas por el Sr. Galarza.

Una vez analizado el expediente y las fotografías presentadas por D. Mikel Galarza Arrue, el Pleno del Ayuntamiento de Albiztur, por unanimidad de sus miembros (sin la participación de D. Mikel Galarza Arrue, por ser parte interesada), cree acreditado, mediante la aportación de las fotografías aportadas por el interesado, y que no constaban hasta la fecha en el expediente administrativo tramitado, que la ejecución del sótano es anterior al 16 de Julio de 2.014, por lo que ha prescrito la acción restauradora y sancionadora ejercida por el Ayuntamiento de Albiztur, debiendo procederse, en consecuencia, al allanamiento de esta Administración en el proceso judicial promovido por el Sr. Galarza y dar la pertinente orden a la defensa letrada de este Ayuntamiento en el citado litigio para dar cumplimiento a la presente Resolución.

En consecuencia, el Pleno del Ayuntamiento de Albiztur ha decidido:

Primero.- Dar validez a las nuevas pruebas presentadas por D. Mikel Galarza Arrue.

Segundo.- Dar los pasos necesarios para que el Ayuntamiento de Albiztur se allane al Recurso interpuesto por D. Mikel Galarza Arrue en el citado RCA Ordinario 127/2.019 que se sigue en el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 3 de Donostia San Sebastián y

notificar al Letrado de este Ayuntamiento en el citado litigio a fin de dar cumplimiento a esta Resolución.

Tercero.- Notificar la decisión a D. Mikel Galarza Arrue.

5. BASERRI BIDEEN DIRULAGUNTZA

Gipuzkoako Aldundiko Ekonomia Sustapenerako, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamenduaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako diru laguntzen 2020ko deialdia argitaratu zen otsailak 27ko GAOn.

Martxoaren 27a arteko epea dago eskaerak egiteko eta oinarri arautzaileak aurreko urtekoaren oso antzekoak dira.

Hautetsien artean gaiari buruz hitz egin ondoren, Albizturren 2 errepide daude egoera txarrean eta konpontzeko beharrez: Arrazpi Berri eta Arrazpi Zahar arteko bidea eta Marea Gainekoa.

Marea Gaineko errepidea berezia da, pribatua delako baina erabilera publikokoa, eta Albizturren hasi eta Tolosan amaitzen delako. Gainera Tolosako zatian bakarrik bizi dira biztanleak, eta ustez ez dago puntuak eman ditzaken esplotaziorik. Tolosako hautetsiek bilera eskatu dute errepide honi buruz hitz egiteko, eta bilera hortan erabakiko da dirulaguntza eskatuko den edo ez.

6. GORKA EGIAK AURKEZTUTAKO AURREKONTUA

Hainbat bilera egin ditugu Gorka Egiarekin etxebizitza alorrean Albizturko Udalari eman diezaioken asesoramenduaren inguruan.

Bilera horietan hitz egindakoan oinarrituz aurrekontu proposamen bat bidali digu, eta gaia landu ondoren Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Gorka Egiak aurkezturiko aurrekontu proposamena onartzea.

Bigarrena.- Gorka Egiari erabakiaren berri ematea.

7. ENERGIA MAHAIKO ORDEZKARIEN HAUTAKETA

2020ko otsailak 13an egindako Tolosaldeko Energia Mahaiaren bileran aipatu zen Energia Mahaia izan daitekela 5.000 biztanletik beherako herrientzat 4/2019 legea betetzeko tresna.

Energia Mahai hori onartzeko eta udal bakoitzeko partaideak izendatzeko beharrezkoa da alkatetza dekretu bidez egitea.

Gaia landu ondoren Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Mikel Galarza eta Oihan Ostolaza izatea Albizturko Udalaren ordezkariak Energia Mahaiean.

Bigarrena.- Energia Mahaiari alkatetza dekretu bidez onartuko den erabakiaren berri ematea.

8. "OSASUN PUBLIKOAREN ALDE" AGIRIARI ATXIKIMENDUA

Osoko bilkurak aho batez "Osasun Publikoaren Alde" dokumentuari atxikitzea onartu du:

Osasun publikoa orain.
Tolosaldeak erabaki.

Duela hiru hamarkada baino gehiago, eskualdea ospitalerik gabe geratzeko arriskua zegoenean, Tolosaldeako alkate guztiak batu eta mobilizatu ziren. 2014an, Tolosaldeako, Andoaingo eta Legorretako alkateek egindako deialdiari erantzunez, milaka lagunek aldarrikatu zuten osasuna eskubidea dela eta kudeaketa publikoa eta kalitatezkoa dagokigula. Orain ere iruditzen zaigu Tolosaldeako alkateok zilegitasuna dugula Eusko Jaurlaritzako Osasun sailari konponbidea eskatzeko.

Osasun arretari dagokionez, urteetako gabezia dago Tolosaldean, eta gutun hau sinatzen dugun alkateok kezkaz bizi dugu egoera hori. Gipuzkoan, Tolosaldea da ospitale publikorik ez duen eskualde bakarra eta, gure ustez, kalitatezko osasun arreta bermatzeko, ezinbestekoa da sare publikoan egotea. Ordezkatzen ditugun herritarrekiko dugun arduragatik, Tolosaldean ere osasungintza publiko, unibertsal, doako eta euskalduna berma dakigula aldarrikatzen dugu.

Gure aldetik, konpromiso irmoa dugu eskualdeko diagnostiko soziosanitarioa zein azterketa soziodemografikoa bultzatzeko, eta azterketa horietarako beharrezko baliabideak eskura jartzeko. Arreta hobetzeaz gain, osasunean eragiten duten aldagaiak kontuan hartu, osasun ikuspegia politika guztietan txertatu eta osasunaren sustapenean zein prebentzioan sakontzen jarraituko dugu. Baina, udaletatik harago, iruditzen zaigu Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak maila bereko inbertsioa egin beharko lukeela eskualde guztietan, eta Tolosaldean, eskualdeko eragileak aintzat hartuko dituen parte hartze prozesu zabala abiarazi behar dela.

Gure herritarrek jasoko duten osasun arreta kalitatezkoa izango bada, zerbitzu publiko bat ezinbestekoa dela ziur gaude, eta kudeaketa horren xehetasunak eskualdean egingo den parte hartze prozesuaren bidez zehaztu behar direla iruditzen zaigu. Prozesu horren bidez, eskualdeko osasun beharrak aztertuko lirateke, aditu taldeek eta gizarte eragileek elkarlanean, eskualdeak behar duen osasun arreta zehazteko aukera izango lukete. Eusko Jaurlaritzarena da halako prozesu bat abiarazteko eskumena eta, beraz, Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoei eskatzen diegu Osasun sailari eska diezaiotela Tolosaldean

partaidetza prozesu bat martxan jartzea, eskualdeak behar duen osasun arreta publiko integralaren diseinua zehazteko.

Hargatik, gutun hau sinatzen dugun alkateok Eusko Jaurlaritzari egiten diogun eskaerara batzeko deia egiten dizuegu Tolosaldeako gainerako alkateei eta eskualdeko gizarte eragileei. Horrez gain, abiaraztea eskatzen dugun partaidetza prozesuan, aktiboki parte hartzeko konpromisoa eskatzen dizuegu, bereziki, eskualdeko udal guztiei. Baita eskaera horren alde, martxoaren 28an Tolosan *Osasun publikoa orain. Tolosaldeak erabaki.* lelopean egingo dugun manifestaziora batzeko ere. Halaber, Tolosaldeako herritarrak ere gonbidatzen zaituztegu, zuen sinadura bidez, mobilizazioari eta aldarrikapenei atxikimendua adieraztera. Sinadura horien bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun batzordera eramango dugu partaidetza prozesuaren eskaera.

9. MARTXOAK 8KO ADIERAZPENARI ATXIKIMENDUA

Osoko bilkurak aho batez Martxoak 8ko adierazpenari atxikitzea onartu du:

EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturan, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzeko borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarrizko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da**.

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;

- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturan parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, ……..ko Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituena tokiko bizitzan,** honako neurri hauek abian jarririk.

Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari atxikitzea, eta Gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea bere lurraldean.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerri batzuekin elkartuta.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.
- Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea edota eguneratzea.
- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.
- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduntzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – Berdinsarea – bat egiteko urratsak ematea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuek elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren karietara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

10. SANTA MARINAKO ESKOLAKO JABEEN ESKAERA

Santa Marinako eskola erosi zuten herritarrek bilera eskatu diote Albizturko Udalari, Albizturko Plan Orokorrean hezkuntzako ekipamendu bezala dagoelako oraindik, eta ondorioz, bertan ezin dutelako bizi eta obrarik egin.

Beraiekin harremanetan jarri eta bilera egitea adostu da.

11. GALDERA ERREGUAK

- Kirol Dirulaguntza: Gipuzkoako Aldundia eta Albizturko Udalaren artean, herrian ez dauden kirol ekipamenduak beste herrietan erabiltzeagatik herritarrek egindako ordainketak diruz laguntzeko aukera dago. Duela 2 urte martxan jarri zen dirulaguntza hau, eta aurten ere ematea adostu da.

-Argazkiak: Nomad Studio Art kultur elkarteko kideak Albiztur bezalako herri txikietan biztanleei argazkiak ateratzen ari dira, bertako herritarren argazki artxibo bat osatzeko. Ondoren kopia bat herritarrari ematen diote, bestea udalari eta interneten txintxilik jartzen dute. Dohainik da eta ekimen polita izan daitekenez, informazio gehiago lortzeko bilera eskatzea adostu da.

Osoko bilkura, 21:25tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko martxoaren 16an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 12:45:12 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:15:43 +02'00'